

Sensibilización sobre salud y género.

Ikastaroan ikusiko dugunez, generoa erabakigarria da osasunean, bai pertsonen bizi-baldintzetan desberdinkeriak eragiten dituelako, bai genero-joera androzentristek medikuntzari eta osasun-arretari buruz ditugun ezagutzetan eragiten dutelako. Generoaren eta aniztasunaren ikuspegia osasunean aplikatzeko oinarritzko urratsak aurkeztuko ditugu.

#OSASUNA

 Autoprestakuntza

MATRIKULA

Ikastaroaren data
IRAUNKORRA

Matrikulazioaren data
IRAUNKORRA

20 orduko prestakuntza egiaztatua

Ikastaroaren hizkuntza GAZTELANIA

IRAKASLEA

-  **Amaia Bacigalupe.**
Soziologian Lizentziatua (UPV/EHU).
-  **Marta Jiménez.**
Medikuntzan Lizentziatua (UAM).
-  **Xabi Martínez.**
Farmazia Gradua (UPV/EHU).
-  **Andrea Cabezas.**
Erizaintza Graduatua (EHU).

Eman izena hemen

HELBURU OROKORRAK

-  Osasunaren alorreko emaitzak sexuarekin, genero-arauekin, rolekin, harremanekin eta osasunaren beste faktore erabakigarri batzuekin lotuta daudela jakitea eta horren kontzientzia areagotzea.
-  Begirada kritikoa ematea, osasun- eta gaixotasun prozesuetan generoagatik sortzen diren desberdinkeriak ikusarazi eta zuzentzeko.
-  Generoan oinarrituta osasun-arloa bidezkoa ez izatea eragiten duten faktore biologikoak, sozioekonomikoak eta norberaren nahiz ingurune bizi-baldintzak aztertu eta aintzat hartzea.
-  Generoa aztertzeko eta analisi hori osasun publikoko testuinguru batean aplikatzeko hainbat trebetasun analitiko eraikitzen hastea.
-  Genero-ikuspegiaren onurak ulertzea, osasun-arloko ekitate ezak benetan murrizteari dagokionez.

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. MODULUA

Osasun-arloan genero-ikuspegia ulertzeko eta txertatzeko funtsezko kontzeptuak.

2. MODULUA

Genero-joerak topaketa klinikoan.

3. MODULUA

Genero-ikuspegia osasunean txertatzearen garrantzia eta ikuspegi hori ez sartzearen ondorioak.

4. MODULUA

Gomendioak eta jarduera onak.